



www.PREKARIOKA.org

GAZTERIAREN LAN BALDINTZAK EZ DIRA JOLASA
LA PRECARIEDAD JUVENIL NO ES UN JUEGO

prekarioka.org, gazteen prekarietatearen webgunea aurkeztu da

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK-k) oka jolas bat prestatu du gazteek enplegu duin bat bilatzean aurkitzen dituzten zailtasunak ikustarazteko.
- Elkarteen plataformak "gazteen prekarietatea joko bat ez dela" argi utzi nahi izan du gaur Donostiako UPV/EHU-n gazteen aurrean aurkezturiko ekimenean.
- Oka jolasa interneten prekarioka.org helbidean eskuragarri dago: proiektu bera eta gazteengandik jasotzen diren iruzkinak Administrazioei bidaliko zaizkie.

Donostia, 2015eko urtarrilaren 27an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) kideek gazteriaren **prekarietatearen errealitate konplexu eta larria salatzeko** garatu duten **PREKARIOKA** jokoa ezagutzera eman dute gaur goizean. Aurkezpena Donostiako UPV/EHU-ko campusean zeuden ikasleekin batera egin da Prekariokaren taula erraldoi bat erabiliz, eta dagoeneko jokoa **interneten eskuragarri dago** prekarioka.org webgunean.

Itsaso Anduezak, EGK-ko presidenteak, proiektu honen gora beherak azaldu ditu. Bere hitzetan **"gazteen prekarietatea joko taula zabal bat bezalakoa da: hamaika aurpegi ezberdin ditu eta gazteak kutxatila batetik bestera zori hutsez bezala mugitzen gara;** batzuetan, aurrera egiten dugula badirudi ere gure lan baldintzek atzera egiten dute; inoiz, ez dakizu non eroriko garen, zein izango den gure hurrengo egoera prekarioa; **eta behin jokatzan hasita, ez dugu** jokotik irteteko aukera askorik". Prekariokak oka joko tradizionalarekiko ezberdintasun bakarra dauka: behin azken kutxatilerara helduta, jokoa ez da bukatzen. Horrela ba, leloan isladatzen da EGK-k egin nahi izan duen salaketa: **"gazteriaren lan baldintzak ez dira jolasa"**.

Gazteen prekarietatea 24 kutxatiletan

Ironia ardatz dutela, 24 kutxatila erabili ditu Prekariokak gazteek lan munduan topatzen dituzten egoera anitzak ikustarazteko: langabezia, praktika ez laboralak, bekak, soldata baxuak, formazio kontratuak, lan emigrazioa, ginkualifikazioa, behin behinekotasuna, kontraturik gabeko lanak, autonomo faltsuen fenomenoak, ekintzaitza behartua... Anduezak azaldu duen legez **"gutariko bakoitzak ez ditugu hemen aurkitzen diren egoera guztiak bizi izan, baina gazte guztiak islatuta ikusiko gara egoera batean edo bestean"**.

www.egk.org



Oka jolas honen helburuetako bat gazteek lan merkatuaren baldintzak hobeto ezagutzea da, EGKko kideen hitzetan "orokorrean, beka, praktika edo lan bat lortzen dugunean ezartzen dizkiguten baldintzak zuzenean onartzen ditugu letra txikia ondo irakurri gabe. Baina, askotan, gure eskubideak urratuak izaten dira eta ez gara konturatu ere egiten".

EGK-k garatutako oka jokoak 24 kutxatila ditu, baina agian gehiago izan zitzakeen. Berez, orain Prekarioka gazteen parte hartzearekin osatu nahi da eta horregatik, **gazteren batek bizi izan duen egoeraren bat faltan botatzen badu edo jasota dagoen bati **ekarpenik egin nahi izanez gero, bere iritzia webguneko iruzkinetan argitaratu dezakeela azaldu dute Kontseiluko arduradunek****; berezko kutxatila bat sortu da honetarako, 22.a "prekarietateak beste mila aurpegi ditu" izenarekin.

Jokoa eta gazteen iritzia, Administrazioetara

Oka jokoa administrazioei bidali zaie, batez ere gazteria eta enpleguan eskumenak dituztenei. Hurrengo asteetan gazteengandik jasotzen diren ekarpenak ere kontutan izango dira "prekarietatearen eta errealitatearen irudia osatzeko oso baliagarria izango delako" eta, ideia hauek batu eta administrazio eta politikariei helaraziko zaie. Ahalik eta zabalpen handiena lortu nahi da eta, horregatik, **gazteak kutxatila guztiak ezagutzera eta jokoa sare sozialetan elkarbanatzera gonbidatuta daude!**

Proiektu honek EGK-k aurretik egindako beste ekimenen ildo jarraitzen du, **lan emigrazioaren inguruko "SOS Gazteak"** edo **ekintzailetzaren "Gazte, ¿Emprendes o empierdes? #EkinalaPlof"** kanpainak, besteak beste.

Bestalde, EGK-ren baitan biltzen den eta entitate ezberdinetatik zein izen propioan parte hartzen duten gaztez osatuta dagoen **"gazteak eta enplegua" lan taldeak lanean jarraitzen du eta gazteak bertan parte hartzera gonbidatzen ditu.** Orain gazte hauek lantzen ari direna: **gazteen prekarietateari aurre egiteko proposamenak plazaratzea**; hau aurtengo udaberri aldera egingo da.



info + eta elkarrizketak: 688 67 59 32 / komunika@egk.org
Iñaki Goikoetxea Arrufat – EGK-ko komunikazioa